

V.—Urgazle jaun batek galdetzen digu: berak egin bear duen idazti baterako (Bizkai ta Gipuzkoa'n batxu dabiltzan itzak batez ere adierazirik) alegiya Iztegiyaren Egilearen baimenik bear ote duen; edo naikoa ote zayon asmo auxe, alde auzez Euskaltzaindiari adieraztea. Erantzun bear zayo: ez duela, bere lanerako, iñoren baimenik bear bere-bere eskuko zayola-ta.

VI.—Aita Intza'k aztertu ditu: Añibaon *Kristau Dotriña* napa'erez egiña ta *Lore sorta espiritual* bizkayeraz. Azterpide onen befi batzuek eman dizkigu.

VII.—Aita Olabide'k ere *Gramática Vascongada* de Fray Añibarro (Pedro) non edo an idoro du ta onen befi eman digu,

VIII.—Leiza'aga'ren euskereari oar batzuek ezafi dizkiyo Lakonbe jaunak eta

IX.—Etxegarai jaunak esan digu nolaz irakuriyago egin litekean gure aldizki *Euskera*. Bere aburuz on litzake, ageriyak bederik euskeraz ezik, prantzeraz ta erderaz asaltzea. Auxe erabaki da.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta otoitzez amaitu da batza'aldi au.

Donostia'n, Aldundi - Jauregian, 1927'ko Orila'ren 28'an.

Aureko batza'ean aipatzen diran euskaltzain ta ordeko berak datoz. Otoitzez asi da batza'aldia.

I.—Eguskitza jaunak esku-idazti bat irakuri digu, euskeraz egiña ta dirudienez Xemein'go Eleizarako ta Mogeldafen aurekoa. Itz batzuek jaso ditu.

II.—Azkue jaunak *Curiosities du Pays Basque* Daranatz jaunarena dala-ta, irakuri digu bere lan bat lapurteraz egiña.

III.—Aita Intza'k itz beñi batzuek ekañi dizkigu, an da emen bilduak bañan geyenak Ultzama'koak.

IV.—Aita Intza'k esan digu, Leitza'n jai aundi batzuek gertu nai dituztela, zerbaiten eun urte betetzea dalako. Napañoa'ko *Euskeraren adiskideak* an izango dira jai oyetako egun batez. ¿Euskaltzaindiak egin ote lezake bere euskal-egun bat? Auxe erabaki da: Aita Intza'k galde bezayo Leitza'ko Udalari zer dalata ote dituen jai oyek ta egoki liteken Euskaltzaindia angoxe jayetán asaltzea; aita Intza'k berak urango batzaraldian esango digu.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzaraldi au.
